



Esp. kodea: 2016SAPL0013

Gaia: PLENOA 2016/12/20
Hasiera eguna: 2016/12/13

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko abenduaren 20a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, akats zuzenketa bat onartuta, 2016ko azaroaren 29a egindako bileraren akta onartu du.

2.- N16/02095 zk. Alkatezako ebazpenaren berri ematea

Osoko bilkurak N16/2095 zenbakidun Alkatezako ebazpenaren berri hartu du, besteak beste, hainbat batzorderen Lehendakaritzen delegazioa burutzen duena.

3.- 2017 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Aldeko 11 (EAJ-PNV eta PSE-EE), kontrako 3 (BALEIKE eta IRABAZI) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU), aurrekontuak onartu egin dira, IRABAZI eta BALEIKE udal taldeen osoko emendakinak bozkatuak izan baina onartuak izan ez direlarik.

4.- 2017RAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2017rako Lanpostuen Zerrenda.

5.- 2017KO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2017rako Plantilla Organikoa

6.- BATZORDE INFORMATZAILEAK UDAL SAILEN KONFIGURAZIO BERRIRA EGOKITZEA

Aldeko 11 (EAJ-PNV eta PSE-EE) botorekin, kontrako 9rekin (EH BILDU eta BALEIKE) eta abstentzio batekin (IRABAZI) honako erabakia hartu du osoko bilkurak, besteak beste:

-Izena aldatzea jarraian zehazten diren informazio batzordeei:

<i>Lehenengo izena</i>	<i>Izen berria</i>
<i>Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomia Sustapeneko informazio batzordea</i>	<i>Toki Garapeneko informazio batzordea</i>
<i>Ogasun informazio batzordea</i>	<i>Ogasun, Diruzaintza eta Ondare informazio batzordea</i>

-Bi informazio batzordetan banatzea orain artean Kirol, Gazteria, Berdintasun eta Hezkuntza informazio batzordea zena, ondokoak sortuz:

- 1. Kiroletako informazio batzordea (kirol arloa hartuko luke barnean)*
- 2. Berdintasun eta Garapen Komunitarioaren informazio batzordea. (Berdintasun, Gazteria, Hezkuntza eta*



Esp. kodea: 2016SAPL0013

Gaia: PLENOA 2016/12/20
Hasiera eguna: 2016/12/13

Ingurumen Eskola arloak hartuko lituzke barnean)

7.- 2017RAKO ARAUDI PLANA ONARTZEA

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2017rako Araudi Plana, honako ordenantza berri eta aldaketak jasotzen dituena:

1.- OBRA ZERBITZU ETA MANTENTZE SAILA:

“ARRASATEKO UDALAREN ORDENANTZA, ERREGULATZEN DUENA UREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUA”.

2.- OGASUN SAILA

2.1.-ARRASATEKO UDALAREN ORDENANTZA, ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEARI BURUZKOA.

(gaur egun indarrean dagoen ordenantzaren aldaketa izango litzateke)

2.2.-ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ERREGULATZEN DUENA.

8.- PROPOSAMENA “DELIBERAZIO PARTIZIPATIBOAREN AKORDIOA” ONARTZEKO, PARTE HARTZE PROZESUA EGITEKO, AZOKA PLAZA BERRITZEARI BURUZ

Aho batez onartu du osoko bilkurak proposatu den deliberazio partizipatiboaren akordioa, zeinetan zehaztu diren hainbat puntu, azoka plaza berritzearen gainean egingo den parte hartze prozesuaren ingurukoak. Hala nola, jarraian zehazten direnak:

1. *Prozesu deliberatzailearen izaera.*
2. *Zer gai deliberatu behar d(ir)en.*
3. *Gebien ez zenbatek parte hartuko duten.*
4. *Parte hartzen duten pertsonen egoera, gizabanako gisa edo entitateak ordezkaturak, edo, hala badagokio, plataformak, foruk edo sareak ordezkaturak, eta aukeraketa irizpideak.*
5. *Prozesuak gebien ez zenbat dirauen.*
6. *Konklusioak zelan erabaki.*
7. *Arduradunak gobernu mailen aldetik prozesua zuzentzeko.*
8. *Eta beste gorabehera batzuk, toki erakundeak pentsatzen badu horiek sartzea.*



Esp. kodea: 2016SAPL0013

Gaia: PLENOA 2016/12/20
Hasiera eguna: 2016/12/13

9.- PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE, ZIGOR BIKOITZARI EZ MOZIOA, SARE ARRASATEK AURKEZTUA

SARE ARRASATEk aurkeztutako mozioa onartua izan da, aldeko 18 boto (EAJ-PNV, EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI) eta kontrako 3 botorekin (PSE-EE).

Arrasaten, 2016ko abenduaren 20a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta